



ONDARROAKO UDALA

## Ingurumen batzordeko akta

Noiz: 2012ko ekainak 15

Ordua: 19:00

Non: Ondarroako udaletxeko 2. solairua

Agertutakoak: Oier Espilla (batzordeburua), Mari Tere Kaltzakorta, Irene Zaton, Ibai Muñiz, Joseba Zabaleta

1 – Aurreko akta onartzen da

2 – Kosta zuzendaritzari Allerin, itsas eta lur domeinuaren barruan, padura berreskuratzeko baimena eskatzea onartzen da (proiektu honetan agertzen den arabera: “*Aieri eremuan -Arrabeta-Goitiz- padura eta Artibai ibaiko ertzak lehengoratzeko eta zaintzeko eraikuntza-proiektua*”, EKOS, 2010eko maiatza”)

- Paduran dauden poste elektrikoak kentzeko ere eskatu beharko dela azpimarratu da (dagokion enpresari). Lurrak biguntzen badira, poste hauek jausteko arriskua dago.

3 – Bizkaiko Foru Aldundiari Anexu eta Goitiz baserriaren arteko saihesbidean (paduraren aldera) zarata gutxitzeko panelak ipintzeko eskaria egitea onartzen da.

- Hiru helburu dauzka ekari honek: padura zaratatik babestea; Kamiñazpi auzoan zarata gutxitzea; eta Allerirako pasealekua leku lasaiagoa bihurtzea.

4 – BESTERIK

- Txomin Agirre ikastola barruan ez daukate bizikleta aparkalekurik. Ikastola kanpoan (Ibaiondo aldera) aparkaleku bat ipintzea egoki ikusten da
- Kotsumo taldea hilaren 14an hasi zen martxan, 10 familiarekin.
- Zaldupe futbol zelaiko lurrak noiz aterako diren galdetu dute Zaldupe eskolakoek. Udan egingo dira obrak, eta hango lur kopuru bat ikastetxera eroango da.